

PROIEKTUAREN AURKEZPENA

Jokuz Blai izeneko gure enpresa, mahai jokoen jolasak egiten dituen enpresa bat da. 3 mahai joko desberdin tablero bakar batean egiten ditugu gure enpresan: xakea, damak eta hegazkina lurreratu.

Gure bezeroak edozein adineko pertsonak izango dira bai gazte eta zaharrak. Hala ere, familiak izango dira bezero garrantzitsuenak. Gure salmenta puntua jostailuen dendak izango dira. Hauek gure produktua zabaldu eta ezagunagoa egingo dute behin hura salmentan jarritakoan.

Era berean, bezeroak edozein gauza behar izanez gero gureekin kontaktuan jarri ahal izango dute gure sare sozial, korreo elektronikoko edo daukagun mugugikor zenbakiaren bitartez.